TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

ERRENTERIAKO UDALA

Hirigintza

Iragarkia

Udalbatzak, 2016ko azaroaren 29an egindako bilkuran,m behin betiko onespena eman zion Hirigintza Plangintzaren Aholku Kontseiluko Araudiaren 2. Aldaketari.

Aipatutako erabakiari jarraiki, eta Toki Araubide Oinarri Lege Arautzailearen 65.2 artikuluan aurrikusitako epea igaro ondoren, erabaki horren testu osoa eta ordenantzaren testu osoa argitaratuko da jendeak jakin dezan eta bere ondorioak izan ditzan.

ERABAKIA

1. Izapidatzea aurkeztutako alegazioa, erabaki honen azalpen zatian aipatzen dena.

2. Ezestea alegazioa zati batean, 1.º, 2.º eta 3.º ataleetan, erabaki honen azalpen zatian adierazitako arrazoiengatik.

3. Onartzea alegazioa zati batean, 4.º atala, erabaki honen azalpen zatian adierazitako arrazoiengatik.

4. Behin betiko onespena ematea Hirigintza Plangintzaren Aholku Kontseiluko Araudiaren 2. Aldaketari, proposamen honekin batera doan testuaren arabera, eta aurkeztutako alegazioaren onartutako zatiak suposatzen duten aldaketak jasotzen dituelarik.

5. Jakinaraztea erabaki hau alegazioak aurkeztu dutenei.

6. Jakinaraztea erabaki hau, Araudiaren Aldaketaren testu bateratuarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Tokiko Administrazioari, eta baita Gobernuaren Gipuzkoako Delegaziordetzari. Era berean ere, interesatuari jakinaraziko zaio.

7. Argitaratzea Araudiaren Aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin eta aipatutako erabakia Estatuko Administrazioari eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari jakinarazten zaienetik 15 egun pasa ondoren, Tokiko Erregimen Oiñarrietako Lege Erregulatzailearen 65.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera.

ERANSKINA

ERRENTERIAKO UDAL HIRIGINTZA PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEA ARAUTZEKO UDAL ERREGELAMENDUAREN BIGARREN ALDAKETA

ERREGELAMENDUAREN BIGARREN ALDAKETA IZENEKO DOKUMENTUA

AURKIBIDEA

Zioen azalpena.

1. artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen izaera eta eginkizunak.

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

Urbanismo

Anuncio

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 29 de noviembre de 2016, acordó aprobar definitivamente la 2.ª Modificación del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico.

En virtud de dicho acuerdo, y habiendo transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el referido acuerdo junto con el el texto íntegro de la referida Ordenanza parra su conocimiento y efectos consiguientes.

ACUERDO

1.º Admitir a trámite la alegación presentada, señalada en la parte expositiva del presente acuerdo.

2.º Desestimar parcialmente la alegación en lo referente a las cuestiones 1.º, 2.º y 3.º, por los motivos expresados en la parte expositiva del presente acuerdo.

3.º Estimar parcialmente la alegación en la cuestión 4.º, por los motivos expresados en la parte expositiva del presente acuerdo.

4.º Aprobar definitivamente la 2.ª Modificación del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico, según texto adjunto a la presente propuesta y que incluye las cuestiones estimadas de la alegación presentada.

5.º Notificar el presente acuerdo a los alegantes/reclamantes.

6.º Comunicar el presente acuerdo, junto con el texto íntegro de la Modificación del Reglamento, a la Administración Local del Gobierno Vasco, así como a la Subdelegación del Gobierno en Gipuzkoa. Igualmente se notificará al interesado.

7.º Publicar el Texto íntegro de la Modificación del Reglamento en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, una vez transcurridos 15 días desde la notificación del referido acuerdo al órgano de la Administración del Estado, así como al de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca, a los efectos de lo dispuesto en el art. 65.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local.

ANEXO

SEGUNDA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

DOCUMENTO DE LA SEGUNDA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO

ÍNDICE

Exposición de motivos.

Artículo 1. Naturaleza y funciones del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

EK\CV GAO-I-2017-00235

2. artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen izaera eta eginkizunak.

3. artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen osaera eta funtzioak.

4. artikulua. Udalbatzarenak.

5. artikulua. Udalbatzarenak.

6. artikulua. Azken xedapena - Lehena.

7. artikulua. Azken xedapena - Bigarrena.

ZIOEN AZALPENA

Dagozkion udal tramiteak egin ondoren, 2007ko uztailaren 26ko ohiko batzarrean, Udalbatzak erabaki zuen behin betiko onespena ematea Errenteriako Udal Hirigintza Planeamenduko Aholku Batzordea arautzeko Udal Erregelamenduari (aurrerantzean, EUHPABUE). Erregelamendu hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (168 zk.), 2007ko abuztuaren 28an.Ondoren, 2011ko urtarrilean onartu zen ordenantza horren lehen aldaketa.

2008ko ekainean, Errenteriako Udal Hirigintza Planeamenduko Aholku Batzordeko (aurrerantzean, EUHPAB) hainbat kidek eskatu zuten EUHPABUE berri bat onestea.

2012ko urtarrilaren 27an, EUHPABk gaia eztabaidatu zuen eta erabaki zuen beharrezkoa zela aholku batzordearen erregelamendua egokitzea. Izan ere, baziren hobe zitezkeen hainbat alderdi, bereziki herritarren parte hartzeari zegozkionak. Horretarako, erreferentzia puntu gisa hartu zen Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren Udal Erregelamendua, onartu berri zena eta parte hartzearen inguruko irizpide irekiagoak zituena. Era berean, egiaztatu zen proposamenak EUHPABUEren aldaketa batean jaso behar zirela.

Hortaz, Erregelamenduaren aldaketa honen xedea da testua eguneratu eta egokitzea, parte hartzaileagoa eta malguagoa izan dadin.

Erregelamenduaren aldaketaren zirriborroak, 1 eta 13 artikuluak zati batean aldatzea dakar. Baita, 1 eta 13 artikuluei, eta azen 2 xedapenei hainbat puntu eranstea ere.

Lehen artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen izaera eta eginkizunak.

EUHPABAUEren 1 artikuluaren 2 atala aldatu da. Honela idatzita geratu da:

Batzordeak Udalak –herriko plan orokorra bideratzeko arduraduna izanik– egin asmo dituen azterlan, programa eta egin edo ezar ditzakeen jarraibide eta jarduteko ildoen berri jakingo du, hain zuzen, horiek egiten laguntzeko eta informazioa beti emango du Plan orokorraren idazketa teknikoa hasi ondoren. Hasierako onespena emateko, funtsezko aldaketak sortuko balira, Batzordeak txosten berria eman beharko du. Batzordeburuak edo batzordekideen laurdenak hala eskatuz gero, Batzordeak hasierako onespeneko dokumentuaren edo Plan Orokorraren behin-behineko onespeneko dokumentuaren inguruko txostena emango du.

Batzordeak egoki deritzon gomendioak jakinaraziko dizkio Udalbatzari Plan Partzialak eta Plan Bereziak onesteko. Horrelakoetan, batzordekideen laurdenak bilera deitzea eskatu ahal izango du, Plan Partzialei eta Plan Bereziei buruzko gomendioak eztabaidatzeko.

Era berean, Batzordeak, baldin eta Udalak eskatuko balu, beste edozein Plan edo hirigintza antolaketako instrumentuen gaineko informazioa jaso eta txostena egin dezake.

Bigarrena artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen izaera eta eginkizunak.

Bi puntu berri, 5 eta 6 direlakoak, erantsi zaizkio EUHPABAUEren 1 artikuluari. Horien edukia ondorengoa da:

Artículo 2. Naturaleza y funciones del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

Artículo 3. Composición y funciones del consejo asesor de Planeamiento Municipal.

Artículo 4. Del pleno.

Artículo 5. Del pleno.

Artículo 6. Disposición final Primera.

Artículo 7. Disposición final Segunda.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Tras la correspondiente tramitación municipal el Pleno de la Corporación, en sesión ordinaria celebrada con fecha 26 de julio de 2007, acordó aprobar definitivamente el Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Errenteria (en adelante R.C.A.P.). Dicho reglamento se publicó en el Boletin Oficial de Gipuzkoa n.º 168 de fecha 28 de agosto de 2007. Posteriormente en enero de 2011 se aprobó la primera modificación de la referida ordenanza.

En junio de 2008 varios miembros del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Errenteria (en adelante C.A.P.)solicitaron la aprobación de un nuevo R.C.A.P.

El C.A.P. debatió el tema en la sesión celebrada el 27 de enero de 2012 decidiéndose que era necesario adaptar el reglamento del consejo asesor ya que había muchos aspectos que podían ser mejorados, sobre todo en lo referente a la participación ciudadana. Para ello se tubo como refrente el Reglamento Municipal del Consejo Asesor de Medio Ambiente de reciente aprobación y con unos criterios de participación más abiertos. Así mismo se constató que las propuestas debían de recogerse en una modificación del actual R.C.A.P.

El objeto de esta modificación del Reglamento es por tanto actualizar y adaptar el texto con el objetivo principal de hacerlo más participativo y flexible.

El borrador de modificación de reglamento supone la modificación parcial de los artículos 1 y 13 y añadir ciertos puntos a los artículos 1 y 13, y 2 disposiciones finales.

Artículo primero. Naturaleza y funciones del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

Se modifica el apartado 2 del artículo 1 del R.C.A.P. que queda redactado de la siguiente forma:

El Consejo conocerá de cuantos estudios, programas, directrices y líneas de actuación elabore o establezca el Ayuntamiento como responsable de la formulación del planeamiento general del municipio para coadyudar a su elaboración, e informará, en todo caso, una vez iniciada la redacción técnica del Plan General. Caso de que se produzcan modificaciones sustanciales para la aprobación inicial el Consejo deberá emitir nuevo informe. Si así lo solicita el Presidente del Consejo o una cuarta parte de sus miembros el Consejo informará sobre el documento de aprobación inicial o el documento de aprobación provisional del Plan General.

El Consejo trasladará al Pleno de la Corporación las recomendaciones que estime oportunas para la aprobación de Planes Parciales y de Planes Especiales, en este caso un cuarto de los miembros del Consejo podrá solicitar la convocatoria de una sesión al objeto de tratar estas recomendaciones sobre Planes Parciales y Planes Especiales.

Asimismo el Consejo podrá recabar, conocer y emitir informe de cualquier otro Plan o instrumento de ordenación urbanística si el Ayuntamiento así lo solicita.

Artículo segundo. Naturaleza y funciones del Consejo Asesor de Planeamiento Municipales.

Se añaden dos nuevos puntos 5 y 6 al artículo 1 del R.C.A.P. con el contenido siguiente:

EK\CV GAO-I-2017-00235

5. Aholku Batzordearen xedeetako bat izango da herritarren parte hartze sustatzea eta Herritarrek Parte Hartzeko Programaren aurreikuspenak hobeto betetzen laguntzea. Programa hori planeamenduko dokumentuei erantsi zaie.

6. Aholku Batzordeak, gehiengo osoz, Udalbatzari gomendatu ahal izango dio herri galdeketa egitea batzordeari txostena ematea dagokion gai baten inguruan. Betiere, gai hori hirigintza arlokoa bada, garrantzi berezia badu, herritarren artean aparteko eztabaida sortzen badu eta herri galdeketa egin ahal izateko xedaturik dauden baldintzak betetzen baditu.

Hirugarren artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen osaera eta funtzioak.

EUHPABAUEren 2 artikuluaren 1 atala aldatu da. Honela idatzita geratu da:

1. Batzordeko partaideak izango dira:

Alkatea, edo berak eskuordetza emandako Zinegotzia, Batzordeburu izango dena.

Agenda 21 Foroa eratzen denean, foro horren ordezkari bat, zinegotzi ez dena.

Udal alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat, haien artean Alkateak batzordeburu ordea izendatuko du.

Ingurumen arloko elkarteetako ordezkari bat.

Merkatarien ordezkari bat.

Elbarrituen elkarteen ordezkari bat.

Errenteriako Udal Elkargoen Erregistroan inskribaturik dauden kultura elkarteen ordezkari bat.

Errenteriako Udal Elkargoen Erregistoran inskribaturik dauden kirol elkarteen ordezkari bat.

Hiriko Txirrindulari Elkarteetatik ordezkari bat.

Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluaren ordezkari bat.

Errenteriako Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren ordezkari bat.

Errenteriako Udal Elkagoen Erregistroan inskribaturik dauden gazte elkarte eta taldeen ordezkari bat.

Gizarte bazterketaren aurka edota udalerrian etxebizitza eskubidearen alde jardun diren elkarteetako ordezkari bana.

Auzo elkarteetako ordezkari bana, udalerri osoari eragiten dion egiturazko planeamenduari buruzko gaia denean. Egiturazko planeamenduak udalerriaren zati bati eraginez gero, zuzenean eragindako auzo elkarteetako ordezkari bana.

Aurreko paragrafoan hori guztia adierazi arren, udalerriaren zati bati eragiten dion egiturazko planeamenduari buruzko gai baten inguruan txostena eman behar denean, auzo elkarteen laurden batek eskatu ahal izango du udalerriko auzo elkartee ordezkari banak Udalbatzaren Osoko Bilkuran parte hartzea, planeamenduko gai hori bozkatzeko.

Eskaera hori aurretiko informazio bileran egin ahal izango da edo gaia eztabaidatu eta bozkatzeko bilerarako deialdiaren aurretik.

Hainbat elkarte edo erakundek aurkezten dutenean kontseiluan ordezkari bakarra izango duen elkarte edo erakunde beraren ordezkari izateko proposamena, urtebeterako izenda-

5. Será uno de los fines del Consejo Asesor promover la participación ciudadana y coadyudar al mejor cumplimiento de las previsiones del Programa de Participación Ciudadana anexo a los documentos de planeamiento.

6. El Consejo Asesor podrá por mayoría absoluta recomendar al Pleno de la Corporación que un asunto sometido a su informe de índole urbanística que sea de especial relevancia o que genere especial controversia en la ciudadanía y que reúna las condiciones establecidas para ser objeto de consulta popular sea objeto de la referida consulta popular.

Artículo tercero. Composición y funciones del consejo asesor de Planeamiento Municipal.

Se modifica el apartado 1 del artículo 2 del R.C.A.P. que queda redactado de la siguiente forma:

1. Formarán parte del Consejo:

La o el Alcalde, o el Concejal o Concejala en quien delegue, que será su presidente.

Una persona no corporativo representante del Foro de Agenda 21 cuando se constituya este.

Una persona en representación de cada uno de los grupos políticos municipales, de entre los cuales el Alcalde nombrará el o la vicepresidente.

Una persona en representación de asociaciones medioambientales.

Una persona en representación de los comerciantes.

Una persona en representación de asociaciones de personas con minusvalías.

Una persona en representación de asociaciones culturales que se hallen inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones de Errenteria.

Una persona en representación de asociaciones deportivas que se hallen inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones de Errenteria.

Una persona en representación de las asociones ciclistas del municipio.

Una representante integrante del Consejo de Igualdad de Errenteria.

Una persona en representación del Consejo Asesor de Medio Ambiente de Errenteria que sea integrante del mismo.

Una persona en representación de asociaciones y grupos juveniles que se hallen inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones de Errenteria.

Una persona en representación de colectivos dedicados a trabajar contra la exclusión social y/o por el ejercicio del derecho a vivienda dentro del término municipal.

Una persona en representación de cada una de las asociaciones vecinales, cuando se trate de un planeamiento estructural que afecte al municipio en su totalidad. En el caso de que el planeamiento estructural afecte a una parte del municipio, una persona en representación de cada una de las asociaciones vecinales directamente afectadas.

A pesar de lo expuesto en el párrafo anterior, cuando se trate de informar sobre un tema de planeamiento estructural que afecte solo a una parte del municipio, un cuarto de las Asociaciones Vecinales podrá solicitar que un representante de cada una de las asociaciones vecinales del municipio, sea miembro del pleno al objeto de votar dicho tema de planeamiento.

Esta petición podrá hacerse en la primera sesión explicativa o antes de la convocatoria para la otra sesión para debatir el tema y ser votado.

Cuando existan varias propuestas de representación de asociaciones u organismos, para formar parte del consejo, para el mismo tipo de asociación u organismo para el que este previsto

EK\CV GAO-I-2017-00235

tuko da ordezkaria. Ondoren, epe bererako txandaka izendatuko dira proposamena aurkeztu duten gainerako elkarte edo erakundeetako ordezkariak.

Laugarren artikulua. Udalbatzarenak.

EUHPABAUEren 13 artikuluaren 2 puntua aldatu da. Honela idatzita geratu da:

2. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen deialdia, gutxienez, hiru eguneko aurrerapenarekin egingo da bilera ohikoa denean eta, bi eguneko aurrerapenarekin, bilera ezohikoa bada. Deialdiarekin batera bidaliko dira gai-zerrenda eta, ezatabaidatu ahal izateko, beharrezko dokumentazio guztia. Batzordekideek eman beharreko txostenari dagozkion gaiak ulertu eta hausnartzeko aukera izan dezaten, aldez aurretik, beste bilera bat egingo da eta, bertan, gai horien inguruko azalpen guztiak emango dira. Geroago, gutxi gorabehera, 15 eguneko epean beste bilera bat deituko da gaiak eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Bosgarren artikulua. Udalbatzarenak.

Bi puntu berri, 3 eta 4 direlakoak, erantsi zaizkio EUHPABAUEren 13 artikuluari. Horien edukia ondorengoa da:

3. Aurreko atalean ezarritakoari kalterik egin gabe, Batzordea hiru hiletik behin bilduko da ohikotasunez.

4. Dokumentu administratibo guztiak ele bitan egongo dira idatzita. Planei dagokienean, berriz, bi hizkuntzatan idatzita egongo dira Aholku Batzordeari aurkezten zaizkion dokumentuen laburpenak. Batzordearen deialdi guztietako gai-zerrendan txertatuko da «udalerrian azterketa pean dauden hirigintza jarduketei buruzko informazioa» izeneko puntua. Horren xedea da batzordekideek aurretik ezagutu ditzaten aztertzen ari diren jarduketak, gerora aurrera egin dezaten ala ez.

Seigarren artikulua. Azken Xedapena - Lehena.

Lehena. Erregelamenduaren aldaketa hau indarrean jarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratzen denetik, hamabost eguneko epea igarotakoan.

Zazpigarren artikula. Azken Xedapena - Bigarrena.

Bigarrena. Egun horretatik aurrera, espresuki indargabetuko dira, ondorio guztietarako, aldaketa honen kontraesanean dauden Errenteriako Udal Hirigintza Planeamenduko Aholku Batzordea arautzeko Erregelamenduaren artikulu eta paragrafo guztiak.

Era berean, indargabetu egingo dira Erregelamenduaren aldaketa honen edukiaren aurka dauden gainerako udal xedapen guztiak.

Errenteria, 2017ko urtarrilaren 13a.—Julen Mendoza Pérez, alkatea. (235)

solo un representante, entonces será nombrado el representante por el plazo de un año. Posteriormente por igual plazo y de forma rotativa, se nombrarán.a los representantes del resto de las asociaciones u organismos que hayan propuesto ser miembros.

Artículo cuarto. Del pleno.

Se modifica el punto 2 del artículo 13 del R.M.R.C.A.P.U.A.E. que queda redactado de la siguiente forma:

2. La convocatoria del Consejo Asesor de planeamiento municipal, se cursará a sus miembros con un mínimo de tres días de antelación para las sesiones ordinarias y de dos días de antelación para las extraordinarias, acompañadas del orden del día de la sesión y con la documentación que resulte necesaria para su debate. Con el fin de que los miembros del Consejo tengan la posibilidad de poder entender y meditar los temas sometidos a informe, todos los temas que deban ser informados por el Consejo se verán en una primera sesión en el que serán explicados. Posteriormente en un plazo aproximado de 15 días se convocará otra sesión para debatir el tema y ser votado.

Artículo quinto. Del pleno.

Se añaden dos nuevos puntos 3 y 4 al artículo 13 del R.M.R.C.A.P.U.A.E. con el contenido siguiente:

3. Sin perjuicio de lo establecido en el punto anterior, el Consejo se reunirá trimestralmente con carácter ordinario.

4. Toda la documentación administrativa será en bilingüe, y en cuanto a los planes, serán en bilingüe los resúmenes de los documentos que se presenten al Consejo Asesor. En todas las convocatorias del Consejo se incluirá un punto denominado « información sobre distintas actuaciones urbanísticas en estudio en el municipio», con el fin de que los miembros tengan conocimiento previo de las actuaciones que se están estudiando aunque luego las mismas prosperen o no.

Artículo sexto. Disposición Final Primera.

Primera. La presente modificación del reglamento entrará en vigor una vez transcurridos quince días desde la publicación del texto íntegro de la misma en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Artículo séptimo. Disposición Final Segunda.

Segunda. A partir de la citada fecha, quedarán expresamente derogados a todos los efectos los artículos y párrafos del Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Errenteria que se contradigan con la presente modificación.

Igualmente quedarán derogadas cuantas otras disposiciones municipales se opongan al contenido de esta modificación de Reglamento.

Errenteria, a 13 de enero de 2017.—El alcalde, Julen Mendoza Pérez. (235)

EK\CV GAO-I-2017-00235